

Elkarteanek Turismoaren Nazioarteko eguna dela eta turismo irisgarri eta inklusiboa aldarrikatzen du

Elkartean, Euskadiko Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Koordinazio Elkarte da, Fekoor (Bizkaia), Elkartu (Gipuzkoa) eta Eginaren Eginez (Araba) erakundeek osatua, eta turismo irisgarri eta inklusiboa aldarrikatu du, pertsona guztientzako aukera berdintasuna bermatuko duena.

Turismoaren Nazioarteko Eguna dela eta, manifestu baten bidez, plataformak nabarmendu du nahiz eta eskubide eta irisgarritasun arloan aurrerapenak egin diren "oraindik muga nabarmenak daude desgaitasuna duten pertsonen turismo zerbitzuetara sarbidea izatea oztopatzen dutenak". "Gaur egun, Euskadiko turismo ostatu asko, garraio-sistemak eta espazio publikoak ez dira irisgarritasun-eskakizunak betetzen ari, eta horrek ezberdintasunak eta bazterkeria eragiten ditu", adierazi du Elkarteaneko teknikariak, Lexuri Badiolak.

Legea urrunetik betetzen

Ildo horretan, Badiolak gogorarazi du Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenean zein Euskadiko Turismo Legean eskubide bezala aitortzen dela irisgarritasun unibertsala eta informazioa baldintza berdinetan jasotzeko aukera. Hala ere, "errealitate hori urrun dago bete-betean gauzatzetik", salatu du.

Horregatik, Elkarteanek ondorengoak aldarrikatzen ditu: Euskadiko turismo baliabide eta zerbitzu guztietan irisgarritasun unibertsala bermatzea; politika turistikoetan ikuspegi inklusiboa txertatzea; Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen parte-hartzea bermatzea politika horien diseinuan; turismo baliabideen irisgarritasunari buruzko informazioa ematen duten tresnak sustatzea, eta sektoreko agenteei irisgarritasun unibertsala eta inklusioaren inguruko prestakuntza eskaintzea.

"Turismoaren Nazioarteko Egun hau aukera bat da gogorarazteko turismoa pertsona guztiek gozatu behar dutela, gure gaitasunak edozein direla ere", amaitu du Badiolak.

ELKARTEAN

Ondarreta 5, behea
20018 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 316 770
elkartean@elkartean.org
www.elkartean.org

ELKARTU

Ondarreta 5, behea
20018 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 316 770
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

FEKOOR

Blas de Otero 63, behea
48014 Bilbao
Tel. 944 053 666
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

EGINAREN EGINEZ

Simón Bolívar plaza 9, behea
01003 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 225 516
info@eginez.org
www.eginez.org